

## **Elkarlanerako hitzarmena sinatu dute EITBk eta MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak**

2014/05/09

Gaur, maiatzak 9, bi erakundeen arteko elkarlanerako hitzarmena sinatu dute Maite Iturbe EITBko zuzendariak eta Nekane Arratibel MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanook.

Bilbon EITBk duen egoitzan sinatutako hitzarmenaren bidez, sakonduko nahi da bi erakunderen arteko harremanean, bereziki, hurrengo kontutan:

1. Bi aldeen interesekoak diren proiektuetan, izan ikerketa lanetan (euskarazko komunikabideen esparrua eta informazioaren kontsumo ohituren azterketa abiapuntu hartuta), izan aholkularitza kontuetan, izan sor litezkeen gainerako interesgune komunetan.
2. Ikasleen praktiketan, EITBko hedabideetan.
3. Goikolab komunikazio-laboretegia eta EITBren egoitzetan gauzatu daitezkeen proiektuetan.
4. Arlo akademiko eta profesionalaren uztarketan. Horretara, EITBko profesionalak MU-HUHEZiko ikasketetan eskolak emateko aukerak izango dituzte.

Ekitaldiaren argazki galeria.



Nekane Arratibel, HUHEZIKo dekanoa eta Maite Iturbe, EITBko zuzendaria.